



Magia ikuskizuna Okendo plazan.- Jon Zabalek gidatutako "El sucesos" kale antzerkia izan zuten herritarrek gozagarri ostiral arratsaldean. Ikusleak eurak izan ziren antzerkiko protagonistak, magoak unero eskatzen baituzuen ikusleen kolaborazioa ikuskizunarekin aurrera jarraitzeko. Denetarikoa lanak jarri zizkien Jon Zabalek lasarteoriatarrei: kartak aukeratzea, marraztea, izen, data edo sentimendu jakin batean pentsatzea... Jakina, gero berak ikusleek pentsatu edo marraztutakoa asma zezan. Esan beharra dago gehienetan bete-betean asmatu zuela eta herritarren artean ezinegona ere sortu zuen. "Nola demontre ote liteke!", "Ai ama, asmatu egin du eta!", "Non dago tranpa?" eta gisa horretako adierazpenak entzun ziren han-hemenka. Kale antzerki denboraldia martxan da hortaz, aurreko urteetan esperientzia gazi-gozoak izan dira eguraldi berra dela eta, ezin izan baitzen iaiz kale antzerki bat edo beste egin. Baina oraingo honetan bai, eguraldi ona eta temperatura atsegina lagun, herritar ugari hurbildu ziren Okendo Plazan izen emanaldia ikustera argazkian ikus daitekeen gisan.

3 HITZARMENAK Herria euskalduntzen jarraitzeko hitzarmen sinaketa

Ttakunek, lau ikastetxeek, AEK-Munnteri euskaltegiak eta Udalak sinatutako hitzarmenaren garrantzia azpimarratu zuten, bai jasotzen dituzten programen eta diru-laguntzen kopuruarengatik, baina batez ere, eragile guztiek saretuta eta adostasunean lan egiteko aukera dutelako.

5 KULTURA Udararako kultur proposamenak aurkeztu dituzte

Zinea, dantza, kontzertuak... denetarikoko kultur eskaintza izango da Lasarte-Oriako kaleetan uda honetan. Gazteria eta Kultura sailak uztaila, abuztua eta iraileko aste-buruetarako egitarau bete-a prestatu du. Ekintza guztiak kalean eta doan izango direla jakinarazi dute.



**Uztaileen zehar
TXINTXARRI aldizkaria
astelehenetan
bakarrak argitaratuko
dugu. Herriko informazio
guztia
txintxarri.info
orrialdean**

EUROMIKEL'S, S.L.

N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com

Hazitu tu mismo

Auto Mekanika BOXES

OFERTA ESKANTZAN

943 360850

Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI
ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen,
zergatik hainbeste ordaindu ?
Hiru aukera dituzu :
zuk egiten duzu
zuk gurekin ikasiz
guk egiten dugu

**DEITU ETA ESKATU PREZIOAK
KONPROMEZURIK GABE**

Zorion agurrak



Udane

Zorionak gure printzesa-ri, familiaren partez!



Maider

Zorionak gurasoen eta anaiaren partez. Guapa!



Izaro

Zorionak. Zure lehen urtebetetzea ospatzeko irrikitan gaude. Asko maite zaitugu, pasa oporrak! Familia atxeko eta amaxo.



Ekiñe

Zorionak Poxpolina! Gozatu zure seigarren urteurrenaren eta ondo Asko guztiaren partetik muxiak.



Antxon eta Maite

Zorionak zuen eskontzarengatik bikote eta Antxon zure urtebetetzearengatik ere, lagunen partetik muxu pila eta ondo pasa eguna.



Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Jagoba Pascual Lopez, uztailaren 1ean.
- Guillen Iraola Hernandez, ekainaren 25ean.
- Enara Gallardo Larrañaga, ekainaren 25ean.
- Izadi Martínez Lemus, ekainaren 16an.



Heriotzak

- Pedro Marijarréz Sanchez, uztailaren 2an, 83 urte zituela.
- Jose Altipuzurua Artisticmuño, ekainaren 29an, 76 urte zituela.



Nora

Zorionak printzesa zure 6. urtebetetzean. Txokolatezko 6 muxu handi. Oso ondo pasa. Zure familiaren partetik

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia


Lan-eskaria

- Unibertsitatean ikasten ari den gaztea ingeles, euskara, frantses edo eskola-laguntza klaseak emateko prest. Ekonomikoa, 600 766 068, jokin.
- Emakume eskaintzen da etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko. Harremanetarako 677 356 413.
- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko,

- etxeko lanak egiteko astean zehar, jai egun eta asteburuetan... edozertarako prest. Ordulka lan egiteko prest ere. 943 404 015 / 606 661 048.
- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko emakumea prest. 639 412 233.

Eskaintza inmobiliarioak

- Garajea saltzen da erdialdean, Zapategi kalea, 14 metro karratu. 22.000 euro. Telf: 607 491 663, Ariz.
- Pisu alokatzetan da. Hiru gela eta bi komun ditu. Hegaldera begira. Zumaburu auzoan. Harremanetarako, 605 770 436.



Hipodromoak atea ireki zituenetik milaka herritar hurbildu dira zaldi lasterketak ikustera. GURE ETXEA ARTXIBOAN

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Iruditan

Zaldiekiko zaletasuna

1916ko uztailaren 2an inauguratu zen Hipodromoa eta Donostiako Sari Nagusia jokatu zen egun horretan. Lasarte-Oriako herritarrek gorotzik izan duten zaldiekiko zaletasuna oso handia izan da. Aurten ekainaren 6an hasi zuten denboraldia eta dagoeneko hiru jardunaldiz gozatu ahal izan dute zaletuek. Aurreko urtean legez, ostirala, igande eta astelehenetan zaldi lasterketak ikusteko aukera dago denboraldi honetan. Gaur esate baterako, laugarren jardunaldia izango da, Hotel Viura da sari nagusia. Abuztuan, berriz, Urrezko kopa eta sari nagusiaren izango dira jokoa.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

| | | |
|----------------|----------------------------------|------------|
| Astelehena, 07 | Gil, Kale Nagusia 24 | 943 361529 |
| Astearte, 08 | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |
| Asteazkena, 09 | Urbistondo, San Frantzisko 1 | 943 366567 |
| Osteguna, 10 | Gandarias-Urtebe, I. de Loyola 9 | 943 019521 |
| Ostirala, 11 | Orue, Jaizkibel plaza 2 | 943 362652 |
| Larunbata, 12 | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |
| Igandea, 13 | Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 | 943 363549 |

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aizpuru, Latxunbe Berri 111,
Herrnani, Tel.: 943 336 077

Larrialdi telefonoak

| | |
|----------------|------------|
| Osasun Zentroa | 943 007960 |
| DYA | 943 464622 |
| Garutze Gorria | 943 363953 |
| Udalzainak | 943 362442 |
| Ertzaintza | 943 288888 |
| SOS Deiak | 112 |

Udalaren telefonoak

| | |
|---------------------|------------|
| Erregistroa | 943 376055 |
| Euskarako Zerbitzua | 943 376184 |
| Kirolegia | 943 376182 |
| Kulturetxea | 943 376181 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 376179 |
| KIUB | 943 361605 |
| Udal euskaltgia | 943 361621 |
| Muntteri AEK | 943 372863 |

Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkarteak
Celtiko kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
C-20407557
Legezko gordailua:
SSS13/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zerota Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:
Nerea Ezpigne, Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Aritzeta Artola
publizitatea@itakun.com
administrazioa@itakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorla Lasa, Ane Labaka, Maialu Arri, Asier Odrizola, Jone M. Hernandez, Joxux Artibe, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

EUSKARA

Herria euskalduntzen jarraitzeko

Udalak hitzarmenak sinatu ditu euskalduntzeko gizarte eragileekin

Pablo Barrio alkateak eta Euskara Batzorde buruak Boris Nogaletsek euskalduntzeko hainbat hitzarmen sinatu zituzten ostiralean. Hitzarmen hauen garrantzia azpimarratu zuten, bai jasotzen dituzten programen eta diru-laguntzen kopururengatik, baina, batez ere, hitzartutakoaren bidez eragile guztiek sareetara eta adostasunean lanean aritzeak suposatzen duenagatik.



Udal ordezkariek elkarte ezberdinetako kideekin hitzarmena sinatu ostean.

TXINTXARRI

Udaletik aipatu zutenek, hitzarmenaren filosofiak adierazten du Udalak, Txakun kultur elkartek, lau ikastetxeek eta Munterri-AEK euskaltegiak elkarrekin landu dituztela Lasarte-Oria euskalduntzen jarraitzeko lan-lerro nagusiak eta programa zehatzak. "Ez da programa batzuenagatik laguntza emate soil bat. Hiritzuntza normalizatzea gizarte-eraldaketara handi bat da eta horretarako erakunde publikoak eta gizarte-eragileak ahalik eta elkarlan estuenean aritzea funtsezkoa da".

Hitzarmen handiena, Txakun Kultur Elkartearik sinatu da. Hitzartutako programak Udako txokoak, Udako kanpaldiak, Gazte kluba, Kua-drillategiak, Gazteen hizkuntza trebetasunak garatzen, Familia transmisioa, Solaskide solaskide, Erakundeak euskalduntzen, Bertso Eskola eta Txintxarri

aldizkaria dira eta guztira 176.741 euro jasoko ditu. Txakun arduratuko da programen antolaketara osoaz, jasolei informazioa ezagutarazteaz, behar diren langile guztiak kudeatzeaz, ebaluatzeaz eta diru-kontuak kudeatzeaz.

Bestalde, Alkateak herriko lau ikastetxeetako Guraso Elkarteetako lehendakariak ere hitzarmenak sinatu zituen, Sasota ikastetxeko Pello Sanchezekin eta Institutuko Kaxkaro guraso elkarteak Juan Jose Martinek hitzamen bana eta Landaberriko Jose Sarobe lehendakariarekin bi hitzarmen, bata lehen hezkuntzako ikastetxeko programekin eta bestea bigarren hezkuntzakoekin.

Ikastetxeak eta AEK

Diru-lagundutako programen arloan ikastetxeetako aldizkariak, pertsonaia ezagunen bisitak, eskola-orduz kanpokoa jarduerak euskalduntzeko

Hezitzaileek asko egin dezakete! programa, Lagunarteko hizkerarekin jolasean programa, Elemeleka programa edo Gu ere bertotan bezalakoak.

Lau hitzarmenak desberdinarok badira ere, guztira 44.043 euroko aurrekontua suposatzen dio Udalarri. Boris Nogaletsek adierazi zuenez, hirugarren ikasturteaz Munterri-AEK euskaltegiarekin hitzarmena sinatu da 2014-15 ikasturterako. Adostutako programara 1.750 euro irakurzaletasuna sustatzeko 750 euro eta Autoikazuntzako mintza-saioak laguntzeko 660 euro jasoko dituztela. Guztira, 13.450 euroko laguntza.

Munterriko Olatz Urdanpilletak adierazi zuen programa horretaz gain, Askatu ingai-programarako 1.750 euro irakurzaletasuna sustatzeko 750 euro eta Autoikazuntzako mintza-saioak laguntzeko 660 euro jasoko dituztela. Guztira, 13.450 euroko laguntza.

SANTA ANA EGUNA

Parodiarako aktoreak behar dira

Urtero Txakunek antolatzen duen Santa Ana Parodiarako aktoreak behar dira. Herriarrek ekimen dibertigarri honetan parte hartzeko deia luzatu nahi da antolakuntzatik urtero legez.

Junkal Perezek hitzetan ez da dagoi berezirik behar "ondo pasatzeko gogoia besterik ez". Parodia uztailearen 26an izango da 22:30ean Okendon eta aurretik hainbat entsegu egun finatuko dira: uztaileak 15etik 17ra 18:00etatik 20:00etara, uztailearen 21etik 24ra 18:00etatik 20:00etara.

Egunean bertan ere entsegu orokorra egingo da Manuel Lekuanan 16:00etatik 18:00etara eta ondoren afora Parodia antzeztu baino lehen Lasartearena elkartearen eskutik.

Interesa duten herriarrek Txakuneko bulegotik pasa daitezke, telefonoz deitu 943 37 14 48 zenbakira edota kultura@takun.com helbidera mezuza bidali.

BIYAK BAT

Elizondora txangoa

Hilabetero legez, Biyak Bat erretiratuaren elkarteko lagunek irteera antolatuzte uztailearen 24an. Oraingoan Nafarroa iparralderara egingo dute eta Baztango bailara eta Bertzeako jaunerria bisitatuko dituzte.

Goizeko 9:00etan aterako autobusa elkarteko egoitza aurretik. Goizean zehar Bertzeako jaunerria bisitatuko dute. Osteen Elizondo aldera joan eta bertan bazkalduko dute. Bazkaltzean, dantza eta bingoa izango dira.

Izena ematea irerki da dagoeneko. Irteeran parte hartu nahi duten herriarrek egoitzako bulegoan inskribatu behar dute goizeko 10:30etik 12:30era. Biyak Bat elkarteko bazkideak 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 40 euro.

KIROLA

Hobekuntzak kirol zerbitzuan

Udal Kirol Zerbitzuen eskaintza eta erabiltzaileen erosotasuna hobetzeko helburuarekin kirol instalazioetan hainbat berrikuntza egiten ari direla jakitera eman du Udalak.

Hauek dira erabiltzaileek kontutan hartu beharrekoak:

- Takilak itxeko norberaren giltzarra erabiltzea bultzatuko da, euroarekin eta giltzarekin ibiltzea baino askoz erosagoa delako.

- Lasarte-Oriako udal kirol instalazioen sarrera kudeatzeko hartz-markaren erabilera bartzatzen hasi dira; hartz-marka udal kiroldegia erabiltzeko bulegoan hartzeko eguna asteazkenetan finkatu da, jendea hartzeko ohiko ordutegian, 10:00etatik 12:30era eta 17:00etatik 19:00etara.

- Aurrerantzean bazkideentzat kirol txartel berriak erabiliko dira Buruntzaldea mailan, txartel hauek kirol instalazioen sarrera kudeatzeko gertutasuneko txipa dute eta erabiltzaileen argazki digitala darabate inprimatua; txartelak gutxienez, 5 urteko iraupena du.

SAN PEDROAK

Eskerrik asko jarraipenagatik

Herriko festetan herriar batzuk argazkiak aterata eta erre-dakiziora ekarri dizkizue Txintxarri.info -n eskegi edota aldi-zkarian argitaratzeko. Bestalde, sareen gure bisita kopurua asko igo da jai egun hauetan eta bisitari guzti horiei ere esker-rak eman nahi dizkiegu. Hala ere, aldi-zkarian Amaia Gonzalez Caballeroren argazki oin batean akatsa egin genuen eta argui behar da Suberri orkestra izan zela ikuskizun honetan musika jarri zuena.

UDALA

Ohiko batzarra bihar

Bihar asteartea, ohiko udalbatzarra izango da 18:30ean. Honetan alderdierik hainbat gai jarraituko dituzte. Tartean udala eta A-36 Zaratain HIE-ko Kontzentzazio batzarra hitzarmen urbanistikoa, Bilidur aurkeztutako Egunariako auzi ekonomikoari buruzko mozioa, PSE-EK aurkeztutako Gorka Lizarragaren epailetako gastuak ordaintzeko buruzko mozioa eta udal kontuhartzaileak bideratutako erreparrak. Akten onarpenak eta kreditu aldaketak dira gai zerrenda osatzen dutenak. Galderra eta erreguen txanda izango da bilkuran amaieran ohiko bezala. Batzarrak iriak dira eta herriarrek bertaratu daitezke.

Iragana ikertzen jarraitzeko babesa

Udalak eta Islada Ezkutatua taldeak elkarlan hitzarmena berri zuten ostiralean. Pablo Barrio alkateak auzaldu zuenez, Gipuzkoako Aldundiak subentzio programa bat jarri du abian probintzian Gerra Zibilean gertatutakoak ikertzen eta argitzen laguntzeko.

Islada Ezkutatua taldearen jarduna eta "emaiza onak" ikusita, Udalak Aldundiari eskaera egin eta taldearekin elkarlanean jarraitzeko asmoa auzaldu zuen.

Etorikuneko lan-ildoak

Islada Ezkutatua taldeko Mailu Arrutik auzaldu zuten euren lanaren jarraipena lau alorretan banatu du dela.

"Batekik, presa gehien



Pablo Barrio eta Mailu Arruti Islada Ezkutatua taldeko kidea hitzarmena sinatzen.

duena, lekukotzak jasoko nahi ditugu, zuzenak zein zeharkakakoak. Inguruko herrietako artxiboen lanean jarraitzeko asmoa ere badugu, eta aurrerago agian Salamancako artxibo militarren begiritzera joango gara. Aurrerantzean ere, etxeko banatuko duten diptiko informatibo bat prestatuko dugu eta azkenik, berrikuntza gisa, herriari Gerra Zibilean esangura izan zuten puntuetan plakak jarri eta zirkuitu urbano bat prestatuko dugu".

Oporretan euskaraz irakurtzeko aukera

Irakurle txokoak baditu ikasturte berrian landuko dituen irakurgaiak

Ikasturte berrian irakurle txokoa bueltan izango da bere hileroko hitzorduarekin. Dagoeneko ardea, Uxue Alberdiren laguntza, lehenengo irakurgai zerrenda bat osatu dute oporraldia irakurtzeko probestu nahi duten herritarrek aukera izan dezaten. Asmoa, lehenengo ikasturtean egin bezala, hainbat saiotara idazlea ekartzeko izango dela aurreratu dute.

TXINTXARRI

Irakurle txokoak bueltan izango dira Villa Mirentxun irakurle txokoa. Estreineko ikasturtean arakasta izan dute literaturaz hitz egiteko hitzorduek eta egindako solasaldietara asko izan dira gerturatu diren herritarrek.

Lehenengo saioek izan zuten bereziki parte hartze handia, ondoren, parte hartzaile kopurua egonkortu eta hogei inguru izan dira modu finkoan bertaratu diren herritarrek.

Uxue Alberdi idazle eta bertsoariak gidatu ditu taldearen solasaldiak eta ikasturtean, maiatzean bukatu zuten Alberdi beraren azken lana aztertzen.

Tartean, Miren Agur Meabe, Harkaitz Cano, Eider Rodríguez eta Irati Jimenez idazleak etorri dira solasaldi hauetara euren lanen inguruan irakurleekin gogeta eta hausnarketak elkarbanatzen.

Batez ere idazleekin egindako bilera esperientzia

aberagarria izan direla aipatu dute parte hartzaileek. Horregatik, gogotsu daude hasitako ibilbideari jarraitzea emateko.

Euskaraz irakurri

Txokoaren helburuen artean, Lasarte-Orian euskarari beste gune bat eskaintzea zen, euskaraz literatura gerturatu eta bide batez, herritarrek euskaraz irakurtzea animatzea.

Hasitako bidearekin pozik, ikasturte berriari begira, txokoa parte hartu duten herritarrek Uxue Alberdiren batera, ari dira idazle eta irakurgaiak aukeratzeko. Berriki argitaratutako lanak hautatu dituzte horien artean.

Zerrendan hainbat aldaketa egon daitezkeen arren, irakurgaiak zeintzuk izango diren zabaldu nahi izan dute. Izan ere, jakin baitira literatura-azalek oporretan hainbat irakurgai izango dituztela esku artean, euskarazko eleberririk ere egotea sustatu nahi dute taldeko kideek.



Harkaitz Canorekin Twist nobelaz hitz egiteko aukera izan zuten herritarrek Villa Mirentxun aberdun egindako saioan.

Horrela izanda, taldeak Bernardo Atxagaren "Nevadako egunak" hautatu du lehenengo irakurgai bezala. Ondoren, Lander Garro Oretarako idazlea gonbidatuko dute "Gerra txiki" maiatzean arkezutako bere azken eleberriaz hitz egitera.

Klasikoak ere tartea egingo diete eta kasu honetan, Jon Mirandek 1959an idatzitako "Haur Besoetakoa" lana aukeratu dute.

Bestalde, Mari Luz Esteban etorriko da "Amaren heriotzak libreago egin ninduen" eleberriaz hitz egitera.

Saiakera bat ere sartu dute irakurgai zerrenda honetan, hainbat idazleren "genero arritak" lana eta ondoren, Danele Sariurtagerekin hitzordua izango dute "Erraiki" bere lehenengo lanaz hitz egiteko. Honek 2013an igarita beka eskuratu zuen eta orain hilabete batzuk argita-

ratu zuen oso harrera ona izan duen eleberria. Annie Ernauxen "Pasio Hutsa" eta Jule Goikotxearen "Tractus" izango dira azterketarako aurreikusitako beste bi lanak.

Irakurle txokotik, datorren ikasturtean egingo diren solasaldietan parte hartzeko gonbidapena luzatzeaz gain, herritarrek euskaraz irakurtzea animatu nahi dituzte literatura proposamen hauekin.

Tajamar errotondako lanek trafiko aldaketak eragingo dituzte gaurtik aurrera

Udaletik jakitera eman dutenez, Tajamarreko errotondan sortu den zuloa dela eta, gaurtik aurrera errepidearen konponketa burutuko da eta horrekin batera, trafikoan aldaketak izango dira.

Ez da zehaztu zenbat egunetako iraupena izango duten lanek beraz, herritarrei aldaketak kontutan izateko eskatzen zaie.

Obra gaur bertan hasiko dira eta azaldukoaren arabera, bidearen zati bat altxatu beharko da errepidearen honoratzen zergatik gertatzen den argitu eta konpontzeko asmoz.

Konponketa lan hauen ondorioz, obraren inguruko eremuak trafikoan aldaketak egingo direla aurreratu du Udalak eta ondorioz herrita-

rrei tentuz ibiltzea eskatu nahi zaie.

Trafiko aldaketak

Tajamar errotonda erdia itxi egingo da lanak burutu bitartean eta beste zatia, norabide bikoitzeko bidea bihurtuko da. Semaforo batek kontrolatuko du trafikoak puntu honetan.

Horretaz gain, Buruntza kalea moztu egingo da Antxota kalearen parean eta ezingo da Tajamar errotondara iritsi. Udalak azaldukoaren arabera, garajeetara iristea baimenduko da soilik tarte honetan.

Antxota kaleak norabidea aldatuko du egun hauetan, Buruntza kaleetik lehenbiziko bidegurutzera eta horrela bertatik Donostia etorbidera iristeko aukera egingo da.


Aldaketa guztiak ondoko planoan agertzen den moduan izango dira Udalak zehaztu bezala.

Arreta

Konponketa lan hauek egingo direla jakinda, arretaz jokatzea eskatzen zaie herritarrei eta besteak beste, ahal den neurrian behintzat, bide alternatiboak erabiltzea eskatzen da.

Lan hauek irau bitartean udalerrian sarrerako lehenengo errotondatik Zumaburuko errotonda arteko ordezko bidea erabiltzea gomendatzen du Udalak arazoak eta trafiko pilaketa ekiditzeko.

Aldez aurretik, Udalak datozen egunetan sor daitezkeen eragozpenengatik barkamena eskatzen du.



Udalak trafikoaren aldaketak azaltzeko zabalduko plano.

Kultura ekintza ugari udan

Asteburuetan ez da aspertzeko aukerarik izango Lasarte-Orian

Zinea, dantza, kontzertuak... denetarik izango da Lasarte-Oriako kaleetan uda honetan. Gazteria eta Kultura sailak uztaila, abuztua eta iraileko asteburuetan ez aspertzeko egitaroa prestatu du. Ekintza guztiak kalean eta doan izango dira.

TXINTXARRI

Ostegunean eman ziztaioan hasiera egitarau oparoari Zinea kalean egitasmoarekin.

Okendo Zinema taldeak eta Udalak elkarlanean beste urte batez, Okendo plaza zinema areto bihurtuko dute.

Aurten bi film diru herritarrek doan eta herriko plazan gozatu ahal dituztenak.

Ostegunean Her filma ikusi ahal izan zen. Eguraldi txarra egin zuenez, Elizatze plazako atepan eskaini zen filma eta herritar talde txikiak bildu zen bertan.

Hauek eskutitz idazle baten amodio abentura bereziak gozatu ahal izan zuten.

Hurrengo hitzordua uztailaren 17an, 22:00etan izango da. Futbol Mundiala amautila, etxeko txiki eta gazteek futbolaz gozatu ahal izango dute. Baina ere berezian. Izan ere, Juan Jose Campanellaren "Futbolin" animaziozko filma eskainiko da.

Kale antzerkiak

Oholtza berezia izango da Okendo plazara ere uztailaren. Eusko Jaurritzaoko Kale Antzerkia bultzatuz ekimenaz baliatuz, hiru kale antzerki izango baitira gurean.

Ostiralean hasi zireen emanaldiak azalean agertzen den "El suceso" emanaldiarekin.

Uztailaren 10ean, osteguna 20:00etan, berriz, "Astokilo" lana ikusi ahaliko da.

Panta Rei antzerki taldeak astakilo berezi bat arkezten digu bere lanean, Rigoletto.

Asto honek bere emozio eta jarrerren bitartez, zaintzaileak Zambulonek baino gizatasun gehiago duela erakutsiko du. Lana gaztelehar arkezuko da.

Eta azkenik, uztailaren 18an, ostirala 22:00etan, Salitre teatroak "Gozo, Gozo, gozoa" haurrentzako ikuskizuna arkezuko du.

Hiru lagun sukaldari lanean jarritako dira eta hainbat gertakizun izango dira. Antzerki taldeko kideen hitze-



XpressionK elkarteak eta Udal ordezkariak Howdy taldeko kideen laguntzarekin arkezteko zuten Udako Kultur Kale Zikloa.

tan, edozein ama seme-alabei ikustea debekatu liekeen ikuskizuna da.

Gelajuziak

Baina dantza ere izango da protagonista Lasarte-Orian. Uztailaren 11an, Kukai dantza konpainiak "Gelajuziak" lana arkezuko du.

Cesc Gelabert koreografoaren zuzendaritzapean sortutako lan honek euskal dantza tradizionala du oinarrian. Baina koreografo katalanak bere ukitua eman die euskal dantzako pausoei. Helburua euskal dantza ikus-ten ohi-tuta daudenen ikuspuntua herritaztea da.

Ekimen hau Eusko Jaurritzaoko dantza sustatzeko duen proiektuaren barruan dago kokatua.

Kultur Kale Zikloa

Bestalde, Gazteria eta festak arloak XpressionK elkartearekin batera, Udako Kultur Kale Zikloa antolatuko du aurturten.

Iazko zikloak balorazio bikaina izan zuten eta horregatik 2014 urteko zikloa aurrera eramanez bi erakundeek.

Aurtengoak gainera berrikuntza bat dakar, uda

honetan hilabetero bi kontzertuz gozatzeko aukera izango da.

Tximistarreta parkea, Okendo Plaza, Oriako Basaundi bailara plaza eta Isla Plaza, herriko lau puntu ezberdinetan eskainiko dira kontzertuak.

"Kokaleku hauei erabilera ezberdina eman nahi zaie. Kasu honetan, kultura zabaltzea", adierazi du XpressionK elkarteak.

Gainera, musika estilo ezberdinetaz gozatu ahaliko da hauetan.

Uztailaren 12an, "The Boogalords & Mary" taldearen blues, funk, soul eta jazz doinuak izango dira Tximistarreta parkean.

"Sabur" taldeak rock, rumba, folk eta latin musika eskainiko du uztailaren 19an.

Oriako auzoko jaietan, abuztuaren 2an, "Adunia" taldearen doinu zeltiar eta rockaz gozatu ahaliko da.

Abuztuaren 23an, "Howdy" taldearen eskutik, country, folk eta bluegrass abestiak dantza ahaliko dira Tximistarreta Parkean.

"Nonguyaz" taldeak funklrock kontzertua eskainiko

du Isla Plazan, irailaren 2an.

Eta Zikloari amaiera emateko, Okendo plazan, "Behi Bi Blues" taldeak Rhythm&Blues eta rockabilly

Saio guztiak arratsaldea 19:30ean hasiko dira.

Santa Ana azoka

Azkenik, uztailaren ohitura den legez, Santa Ana artisauren azoka ospatuko da. Aurturten uztailaren 20an, ingandean hartuko dute plaza artisauren eta janari postuek.

Sendoki Kultur Batzordeak Udalaren laguntzaz antolatzen duen azokak 30. edizioa ospatzen du aurturten eta hainbat berrikuntza arkezteko dituzte.

Gonbita

Kultura eta Gazteria sailako lagunek herritarrek aukeratu dituzten gonbidatzen dituzte.

Kultur Kale Zikloaren kasuan gainera, "plan ezberdina egitera gonbidatzen ditugun herritarrik. Kontzertu egunetan, plaza eta parke ezberdinetara hurbildu eta adibidez, afari merienda batekin familian, lagunekin... musika goza dezaten," adierazi dute.



Herritar talde bat bildu zen Elizatze plazako estalpean "Her" filma ikustera

**Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!**

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

**Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU**

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurgogiko tratamenduak
- Gorpuzteko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan

Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra Basurde burua

Baserri pateak

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barrren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

LABURRAK. ARETO-FUTBOLA.

Bardajik Realarekin aurrendenboraldia

Andar Bardajik ateazain lasarteoriatarra Realeko lehen taldearekin entrenatzen ari da.

Taldeak jakinarazi duenez, hiru izango dira aurrendenboraldi honetan Realarekin lanean arituko diren Sanseko jokalaririk eta horietako bat da Bardajik herritarra.

Hiru gazteek aurrendenboraldi honetan lan zaila bezain ederra izango dute. Izan ere, beharren arabera Sanse edo Realarekin entrenatu eta jokatuko baitituztuzte denboraldi honetako partidak. Realeko teknikoen esku geratuko da ostean, lehen taldean jarraitzen duten edo ez erabakitzea.

Bazpiko gazteak erritmoan

Bazpiko mutilak lehen jarraitzen izan dira. Lehengo larunbatean, ekainaren 28an, Tolosa eta Ezkio-Itsason izan ziren txapelketetan eta bietan lehen hamarren artean izan ziren gazteak.

Ezkio-Itsason jubenil mailako Santa Lutzia proba izan zen. Honetan Joan Ander Unanue 4. postuan sailkatu zen eta Koldo Velasco berri, bosgarren.

Amaroz sarian, Tolosan, kadeteak izan ziren lehen eta Iñigo Aluna gaztea seigarren iritsi zen helmugara. Luken Carbayedak aldiz, hogeitai hirugarren izan zen.

ATLETISMOA/TRIATLOIA.

Atletak gogor lehiatzen Uda partean

Lasarte-Oriako atletak ez dute atsedunik hartzen. Lasarteketaz lasterketa eta probaz proba dabiltza.

Ekainaren 14an, Hiru Handiak proba burutu zen. Gorbea, Anboto eta Aizkorri igotzen dituen proba honek 100 km ditu eta 5200m desnibela du.

Honetan 1800 korrikalarik parte hartu zuten eta Lasarte-Oriako bi lasterkari ere bertan izan ziren. Juanjo Javi Olazagotiaik 16 ordu eta 08 min, eta Peio Fadriquek 17 ordu eta 25 min, egin zituzten.

Lehengo asteburuan berri, I. Trikurail Exerri-Aranatz proba izan zen ekainaren 19an eta Ivan Garcia Caballero herritarrak, 2:23:21 egin zuen.

Donostiako Triatloia

Bestalde, ekainaren 29an, San

Herriko areto-futbolari dagokionez, denboraldi amaierako kopatzat hartua da Mossoren memoriale, denboraldiko azken txapelketa hain zuzen. Aurten goan Izkiña izan da parte-hartu duten hamabi talderen artean onena finalen Viña del Mar menderatu ostean.

TXINTXARRI

Pronostikoak betez, Izkiñak irabazi du XXVIII. Mossoren oroimenezkoa. Viña del Mar taldeak ezin izan zuen ezer egin larunbat eguerdian kiroldegian jokatu zen final handian. Izkiñaren hiru golak Aresek, Urtzik eta Asierrek sartu zituzten hasi eta buka Izkiñaren elastikoaren kolore urdina protagonista izan zuen finala.

Finalaurrekoetan Izkiña txapelkunak Buenetxea utzi zuen kanpoan 4-0eko emaitzaz eta Viña del Marrek berri, Izzar gailendu zuen 2-1ekoarekin.

Formatu azkarreko txapelketa izan da, asteburu

Izkiña garaile Mossoren oroimenezkoan

Viña del Mar taldea 3-0 garaitu du Izkiñak XXVIII. edizioan



Partida amaituta, ohi bezala bi finaltek talde argazkia ateratu zuten Miren Urcolarekin, Mossoren alargunarekin.

bakarrean jokatu dena, hau da, ostiral arratsaldean hasi eta larunbat goizerako amaituta zegoen lehiaketa. Partida guztiek 20 minutuko iraupena izan dute.

Lore eskaintza

Ohi den legez, jokalariek talde-argazkia ateratu zuten Miren Urcolarekin, Joxean Mossoren alargunarekin. Ostadar SKT-ko antolatzaileek eta bi taldeek lore-sorta eskaini zioten Urcolari eta honek bihotzez eskertu zien keinua.



Viña del Marrek aukera bat edo beste sortu arren, Izkiña izan zen nagusi.

TENISA.



Landaberi bikain tenisean

Landaberi ikastolako gazteak Gipuzkoako taldeko txapelketak jokatu zituzten. Ekainaren 21ean, Ixaurrundoko Mons kiroldegian alebin mailako finalak izan ziren eta Landaberriko taldeak izan ziren garaile.

Nesken finalan Landaberri ikastolaren bi talderen arteko norgehiagoka ikusi ahal izan zen. Landaberi A taldeak 3-0 irabazi zion Landaberi B taldeari.

Mutilen mailan, Landaberri Herri Ametsaren aurka

jokatu zuen. Mutilak ere ez zuten hutsik egin eta finaleko hiru partidak irabazi zituzten.

Ez da ahaztu behar, aurreko Txintxarri batean jakin arazi genuen legez, ekainaren 14an, infantil mailako finalak jokatu zirela. Hautetan Landaberri taldeko mutilak txapela eskuratu zuten eta neskek berri, txapelkunorde izan ziren.

Horregatik, Xabier Gonzalez entrenatzailearen hitzetan, denboraldi amaiera paregabea izan dute gazteak.



Fadrique eta Olazagotia Hiru Handiak proba hasi baino lehen. | I. IRRARAZORRE

Pedro egunean herriko hainbat triatletak Donostiako triatloia-Onditz oroimenezkoan parte hartu zuten. Euskadiko Triatloifol olimpioko txapelketa izan zen.

Pili Bodegas herritarrak beteterano mailako hirugarren postua eskuratu zuen, 02:29:39 denborari esker.

Amagoia Fernandez de Lezea, 2:46:09; Noemi Monteiro, 2:55:13; Eñaut Fernandez de Lezea, 2:16:03; Miguel Angel Fernandez, 2:36:25; Zigor Gallardo, 2:39:21; Enaitz Ibarburu, 2:40:43; Peio Fadrique, 2:45:39 eta Pablo Uceru 2:48:40 izan ziren proba amaitu zuten beste herritarrak.

— Agenda —

Ostirala 11, 20:00etan, Okendo plaza



Euskal dantza berrikusten

Kukai Dantza taldeak "Gelajauziak" lana aurkeztuko du. Euskal Dantza eguneratu asmoz, Kukai Dantza taldeak Cesc Gelabert katalanaren zuzendaritzapean lan egin du taldeak. Emanaldiaren protagonista dantza eta kalea dira. Lasarte-Oria dantzan ekimeneko saioa dugu Eusko Jauriritzak lagundua. Doan.

latin doinuak eskainiko ditu. Kultur Kale Zikloaren barruko saioa.

Zinea

OKENDO PLAZA
Osteguna 17, 22:00etan
Kaleko zinea sailaren barruan. "Futbolin" animaziozko filma ikusi ahaliko da. Okendo Zinema taldea eta Udalaren eskutik.

Erakusketa

JALGI KAFE-AZTAKIA
Uztailaren zehar
Patxi Fernandez-en margo erakusketa izango da ikusgai.

Jaiak

ORIA AUZOAZ
Asteazkena 16, goizean
Oriatarrek Karmengo Amaren eguna ospatuko dute.



Lasarte-Oria

Antzerkia

OKENDO PLAZA
Osteguna 10, 19:30ean
"Astakilo" berezi baten oinarritutako kale antzerkia eskainiko du Panta Rhei Antzerki taldeak. Eusko Jauriritzak Kale Antzerkia bultzatuz ekimeneko saioa da. Gaztelaniz.
Ostirala 18, 22:00etan
Salitre Teatroro lagunek haurrei zuzendutako "Gozo, gozo, gozoa" kale antzerkia eskainiko dute. Eusko Jauriritzak Kale Antzerkia bultzatuz ekimen barruko saioa da. Euskaraz.

Musika

ELEBELTZ TOPAGUNA
Asteazkena 09, 20:00etan
Morroplastia, AVT eta King Cayman taldeen kontzertua. Sarrera borondatea.

ZULO ARETOA
Ostirala 11, 21:00etan
Punk gaur izango da. "Manolokabezabolo y los que se le van del bolo" taldeak bere 30. urteurrena ospatzen duen diska aurkeztuko du eta "Sutura" taldearen emanaldia ere izango da. Sarrera, 7 euro; diska barne, 10 euro.
Ostirala 11, 23:55ean
Hannibal x Smith dj-ean saioa izango da.

Larunbata 12, 20:30ean
Mery May abeslariaren kontzertu akustikoa izango da. "Rue Matignon" diskako lanak aurkeztuko ditu.
Larunbata 12, 23:55ean
Kiki Sound dj-aren reggae saio ederra.

TXIMISTARRETA PARKEA
Larunbata 12, 19:30ean
"The Boogalords & Mary Jo" taldeak blues, funk, soul eta jazz doinuein Kultur Kale Zikloari hasiera emango dio.

OKENDO PLAZA
Larunbata 19, 19:30ean
"Sabur" taldeak rock, rumba, folk eta

Usurbil

Udako eskolak

GAZTETXA
Astelehena 07, 17:00etan
Saioa Fernandez eta DYAKO boluntarioek "Hartutako kalte neurologikoak" saioa eskainiko dute.
Asteazkena 09, 17:00etan
Ugaitz Agirek historian zehar, historia bera nola irakurri eta tratatu den azalduko du.
Ostirala 11, 17:00etan
"Hezkuntzaren beharra gaur egun", mahai-ingurua egingo da.

— Herritarren txokoa —

Muntteri-AEK zozketa

Muntteri-AEK euskaltegiak jakin arazten du, "asteburu pasa bi laguntzen aukerako lekuan" zozketaren sariduna 002 zenbakia izan dela.

Udako ordutegia kirolegian

Uztailaren 1etik abuztuaren amaiera arte, udako ordutegia egongo da kirol instalakuntzetan.

Honen arabera, astelehenean ostiralera kirolegia 07:00-13:00 eta 17:00-22:00 bitartean irekia izango da. Larunbatetan, 09:00etatik 13:00etara erabili ahaliko dira instalakuntza eta igandetan itxita egongo da.

Michelingo kirol gunea, berriz, astelehenean ostirala 10:00-12:30 eta 17:00-21:00 ordu tartetan erabili ahaliko da. Larunbatetan goizez izango da irekia, 09:00-13:00 eta igandetan itxita.

Bidaia abuztuan Italiara

Lasarte-Oriako talde batek eta abuztuen 2tik 12ra Italiara bidaia bantolatzen ari da. Bidaia honetan, Siena,

Napoles, Vesubio, Pompeya, Capri eta Roma ezagutuko dituzte.

Bidaia literadun autobus batean egingo dute eta gau gehienak bertako hoteletan pasako dituzte.

Informazio gehiago nahiez gero, deitu 638 051 794 telefonora edo e-mail bati bidali lasartetaldea@gmail.com helbidera.

Taldeak herritarra animatzen ditu, "primeran pasako dugu eta!!".

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatiba Lasarte-Orian marxan da. Kooperatibaren xedea janariaren kontsumo arduratsu bati izatearena da, bertakoa eta ekologikoa.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokaletan banatzen dira barzaki eta fruitak, garaiari garaioak eta ekologikoak.

Kooperatiba honen proiektua gustuko dutenentzat atek zabalki dituzte jakitera eman dute Uztarokoa. Informazio gehiago eskuratzeko uztarolasarteaoria@hotmail.com helbidera.

Eskutitza

Ardura instituzionala, Bilduren gogoz kontra bada ere

Liher-i pare bat gauza TXINTXARRI-n argitaratuko idatzia dela eta. Liheri bere egon ezinakin pilatzen zaizkiola iruditzen zait eta nahastu egingen du EAJ-k hainbeste prentsan ikusi beharrik gaitortzen dion "urtikaria", kritika konstruktibo bati egon nahi izatearen saiakerarekin.

Ardura instituzionala aldarrikatzen dio EAJ-ri Liherrek eta BILDUREkin eta PLCOrekin egindako paktuari halako leialtasun ez leporatzen dio. EAJ-k Lasarte-Oriatarroki entuzten jakin izan zuen eta gobernu aldatzea baina aldeko apustua egin zuen beste bi alderdiekin paktu bat sinatuaz (ez nago zhiru BILDU-k antzeko egoera batean berdin jokatuko ote zuten EAJ-rekin, baina tira!).

Nik, gobernagarritasun bat bermatzeko ezinbesteko akordioa izan zela ulertu nuen eta alde horietatik ez dut ikusten EAJ-k itun hori hautsi duenik. Ez al ditu akaso alkateak, ordentza fiskalak urtero aurera eramaten? Ez al ditu akaso aurrekontu urtero ateratzen? Ez al dira inbertsio nagusienak gehiengo batez onartzen? Eta nik daki-

danez, BILDU-k hamazazpi zinegotzietatik, bost besterik ez ditu eta ez ditu PSeren bozka jasotzen...

EAJko zinegotzirik politikariei eskatzen diegun hori egiten ari direla pentsatzen dut; arduraz eta zintzotasunez lan egiten alegia, eta beti ere bere ideiei utziz.

Liherrek ulertzen ez duena da hiruko paktu baten aitzakian ezin izango denik ezer ere ez kritikatu! Horixe besterik ez genuen behar! EAJ, Liherrek leporatzen dien "ardura instituzional" horrekin ari da hain zuzen ere jokatzen, Okendoko garajeen egoera aspaliditxan salatu zuten EAJ-k (eta ondo salatu eta), San Pedro jaietako omenaldien bati ere bai, iazko Ordenantza Fiskalen lanketan BILDUREn inbrosioa ere bai... eta orain EAJren ardurapean dagoen (lapkatutako ardura, aizue!) lokalen lagapeneren kudeketan, BILDUREn inbrosioa ere bai.

Zer zegoen diot ba Liherri...ardura instituzionala? EAJ-k bai, BILDUREn gogoz kontra bada ere!

Mari Jose Egurza Salaberria

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Txoko eta kanpaldiak martxan

Txokotan 464 haur daude eta Donemiliagara eta Bizkaiko kostara abiatu dira 100 inguru

Uztailaren 1ean hasi ziren Udako Txokoak gurean. Aurten, uztailaren 464 haur ari dira parte hartzen urtero arrakasta handia duen egitasmoan. Donemiliaga eta Gobiaranera 104 gaztetxo doaz, Bizkaiko kostan zehar kanpaldi ibiltarian 51 gazte doaz eta Nafarroan barrena uztailaren 15an murgilduko dira beste 30 lagun. Aspertzeko tarterik ez dute izango.

TXINTXARRI

Udako opporak iristearekin batera, herriko haur eta gaztetxoentzat ekintza eskaintza berezia hasten da. Herriko festaak amaitu eta uztailaren 1ean, ekin zitzaizen urteroko Udako Txokoei.

12 urte arteko 464 ume eta gaztetxo ari dira ekintza eskaintza zabalaz gozatzien. Hilabete honetan, jolas, joko, kirol ezberdinekin batera, bisitak eta irteerak ere egingo dituzte.

Tartean, txikienek ostegunean bertan izan zuten lehenengo bisita.

Xumela abesbatzako kideak beraiekin egon ziren eta denen artean kanta eta

dantzan aritu ziren, hamar kanta inguru eskaini zituen koruak eta haurrak ederki moldatu ziren abesten eta dantzatzen. Xumelakoentzat lehenengo aldia izan zen eta denetzat esperientzia polita. Errepikatzeko moduan azaldu ziren Xumelakoak saioaren bukaeran.

Gaur berriz, tradizioa bilakatu den San Fermintako entziera egingo dute txokotako haur eta begiraleek Okendo plazan.

Txupina jaurti eta ziur korrikaldi politik egingo dituztela ohi bezala zezenen aurrean. Horretarako, dotore jantzita eta egunkaria eskue-tan azalduko dira denak.

Era berean, gaur eguerdian Saharatik herriko fami-



Xumelako kideekin dantzan aritu ziren txokoteko txikiak ostegunean.

lietan uda pasatzera etorritako zazpi umei harre-
ra egingo zaie Udaletxean
eta txokotetan parte hartzen
ari direnez, plazan haur
guztiak dantzan jarriko dituz-
te ongi etorri moduan.

Aipatu behar da, zazpi
haur hauen artean, bi lehen-
engo aldiz etorri direla
Lasarte-Oriara.

Kanpaldietan

LH5 eta LH6ko 52 gaztetxo
Donemiliagara joan ziren
asteazkenean eta LH3 eta
LH4ko beste 52 uztailaren
16an joango dira Gobiarane-
ra.

DBHko gazteen kasuan,
kanpaldi ibiltaria egiten ari
dira ostegunean hasita,
Bizkaiko kostan zehar. 51

gaztetxo eta begiraleek
herrian bukatuko dute aben-
tura. Nafarroa, Baztan aldea
ezagutuko dute DBH3 eta
DBH4ko 30 lagunek. Hauek
uztailaren 16an aterako dira
herritik.

Udan hamaika esperien-
tzia bizitzeko aukera izango
dute guztiak eta ziur ahaz-
tezinak izango direla.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



MATRIKULA

**UZTAILAREN
9tik 16ra**

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

Energia eta ura



e-mail: eskola@lhusurbil.com

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600